

BALIABIDEAK

Proiektu edo ideia bat aurrera eraman ahal izateko baliabide ezberdinak behar izaten dira kasu guztietan.

Baliabide fisiko bat beharko genuke hau aurrera eramateko, supermerkatu moduan erabiliko dugun furgoneta hain zuzen ere. Guk erostea aurreikusten genuen furgoneta Renaulteko Kongooa zen. Halere, prezio ekonomikoagoan eta gehiago konpentsatzen digun garraio elementu bat alokatzea erabaki dugu azkenean. Peugeot boxer 3.5 L2H2 BHDl 140 CV (manual) deituriko kotxe bat alkatatu dugu. Honek onura asko ekarriko dizkigu, izan ere, 463€/hilabeteen ordaintzearekin kostu guztiak estalita izango ditugu. 4 urtez erabili ahal izango dugu zerbitzu hau. Ez dugu aurrerago, gure enpresak irabazi batzuk atera eta gero, gure garraio pertsonala erosteko ideia baztertzen. Ekonomikoki bi ideia hauek alderatuta hartu dugu gure erabakia.

Finantza baliabideei dagokienez, bankuari mailegu bat eskatzea ideia aparta iruditu zaigu. Irabaziak atera bezain laster, bankuari pixkanaka dirua itzuliko diogu. Hala eta guztiz ere, mailegu bat eskatu ahal izateko beharrezkoa izango dugu gutako bakoitzaren poltsikutik errenta kopuru bat jartzea. Kopuru zehatza erabakiko dugu aurrerago bakoitzak eskaini dezakenaren arabera.

Honez guztiaz gain, gure enpresaren funtzionamendua aurrera eraman ahal izateko, langileak ezinbestekoak izango dira. 5 pertsonen dago osatuta gure lan-taldea. Zeregin ezberdinak izango dira egin beharrekoak. Alde batetik, administrazioa. Hau Enarak kudeatuko du, izan ere, bere kalkulotako duen gaitasuna aprobetxatzea erabaki dugu. Berak, diru-sarrerak, diru administrazioa eta telefono deiak erantzuteaz arduratuko da. Bestetik, Onea eta Daxa erosketa egiteaz arduratuko dira. Goizez egingo dute erosketa, eta bezeroek aurreko arratsaldean eskatutakoa erosiko dute. Azkenik, Eki eta Intzak banaketa egingo dute. Arratsaldez herriz herri joango dira Apororder zerbitzua eskaintzen.